

PLAZA BETE MEZU
I. LEHIAKETA

OINARRIAK

Urola Kostako Udal Elkarteak eskualdeko garapen sozioekonomikoa sustatzea du xede.

Gure eskualdean ere, Covid-19ak eragindako pandemiak aurrekaririk gabeko shock ekonomikoa eragin du, eta egoera ekonomikoa erabat aldatu du, bereziki ostalaritza eta merkataritza sektoreetan.

Gauzak honela, lehendik ere garrantzitsua zen egitekoa, erabat lehentasunezkoa bihurtu da. Hori horrela izanik, Urola Kostako Udal Elkarteko Garapen Agentziak ahalegin berezia egin du 2020ko udazkenaz geroztik, eskualdeko merkataritzaren eta ostalaritzaren berpiztea bultzatzeko, besteak beste, **Nire Aukera Urola Kosta** kanpainarekin.

Nire Aukera Urola Kosta kanpainarekin bi helburu sustatu nahi dira: batetik, eskualdeko ostalaritza eta merkataritza alorretan kontsumoa sustatzea; eta bestetik, sektorearen lehiakortasuna areagotuko duten ekimenak sortzea, beti ere sektoreko eragileekin elkarlanean.

Oraingoan, Urola Kostako Udal Elkarteak **Plaza bete mezu** lehiaketa jarri du martxan batetik, eskualdean sektore horiek duten garrantzia balioan jartzeko; eta bestetik, Urola Kostako ostalaritza eta merkataritza guneeetan kontsumoa sustatzeko.

1. LEHIAKETAREN NONDIK NORAKOA

Lehiatzaileek 25 galdera erantzun beharko dituzte. Hain zuzen ere, Urola Kostako ostalaritza eta merkataritza sektoreari buruzko 25 galdera.

Galdera bakoitzak 4 erantzun posible izango ditu eta horietatik bat hautatu beharko da.

Galdera zuzen gehien erantzuten dituen izango da irabazlea. Berdinketarik balego, azkarrena izango da irabazlea.

Irailaren 20tik 24ra bitartean ekimenarekin bat egin duten establezimenduetan kontsumitzen duten pertsonak erantzun zuzenak jasotzeko aukera izango dute eta, bide batez, lehiaketan galdera zuzen gehiago asmatzeko aukera irabaziko dute.

Galdera-erantzunen jolasean parte-hartzeko, beharrezkoa da telefono mugikorra soinean eramatea.

Lehiaketa antolatzeko Kahoot plataforma erabiliko da eta parte-hartzaileek beren mugikorretan aplikazioa deskargatu beharko dute. Lehiaketa gunean, jolasa hasi aurretik, beharrezko argibideak emango dira.

2. ESTABLEZIMENDUAK EKINTZAREKIN BAT EGITEA

Eskualdeko merkataritza eta ostalaritza establezimenduei gonbidapena luzatu zaie ekintzarekin bat egiteko.

Ekintzarekin bat egindako establezimenduen betebeharrak honakoak izango dira:

- Ekintzaren komunikaziorako erabiliko den kartela establezimenduan jartzea, ikusgarritasuna duen espazio batean.
- Lehiaketako galderen erantzun zuzenak jasotzen dituzten txartelak banatzea, irailaren 20tik 24ra bitartean establezimenduan kontsumitzen duten pertsoneri.
- Establezimendu bakoitzak 100 txartel izango dituzue banatzeko.
- Saridunen batek irabazitako erosketa-bonoa kontsumitzeko beren establezimendua hautatuko balu, ~~te~~, bonoa(k) onartu beharko dute/dituzte; beti ere, aurrez irabazleetako bati dagokiola egiaztatuta.
- Erabilitako bonoei dagokien zenbatekoa Urola Kostako Udal Elkarteari fakturatu beharko diote, 2021eko abenduaren 15a aurretik.
- Fakturarekin batera aurkeztu beharko dira irabazleek establezimenduetan entregatutako "txekeak".
- Fakturaren zenbatekoak bat etorri beharko du aurkeztutako "txekeen" baturarekin. Hau da, Urola Kostako Udal Elkarteak egingo duen ordainketaren zenbatekoa izango da aurkeztutako "txekeen" baturaren zenbatekoa. Ulertzen da "txekeen" zenbatekoak BEZa barneratzen duela eta, beraz, ez da aparte ordainduko.

Ekimenarekin bat egindako establezimenduen zerrenda ikusgai egongo da [Urola Kostako Udal Elkartearen webgunean](http://www.urolakosta.eus) <http://www.urolakosta.eus>

3. PARTEHARTZAILEAK

Lehiaketan 18 urtetik gorako herritar orok parte hartu ahal izango du. Adin-txikikoek heldu batek lagunduta parte-hartu ahal izango dute.

4. LEHIAKETAREN LEKUA, DATA ETA ORDUA

"Plaza bete mezu" galdera-erantzunen jolasa irailaren 24an egingo da, eskualdeko lau udalerrietan aldi berean eta zuzenean, 20:00etatik aurrera:

- Getaria, Berdura plazan
- Orio, Herriko plazan
- Zarautz, Foruen plazan
- Zumaia, E. Gurrutxaga plazan

5. SARIAK

SARIAK:

Herri bakoitzean 3 sari banatuko dira:

- 1.goa: 200 €ko erosketa-bonua.
- 2.na: 150 €ko erosketa-bonua.
- 3.na: 100 €ko erosketa-bonua.

Erosketa bonoak, 50€ko "txeketan" zatituta emango dira.

- 1.go saria: 50€ko lau txeke
- 2.go saria: 50€ko hiru txeke
- 3. saria: 50€ko bi txeke

Txekeak ezingo dira zatikatu. Bai, ordea, pilatu. Beraz, erosketa bakarrean "txeke" bat baino gehiago erabili ahal izango dira.

6. SARITUTAKO EROSKETA BONUAK KONTSUMITZEA eta HORRETARAKO EPEA

Irabazitako "txekek" ekimenarekin bat egin duen establezimenduen zerrendan dauden establezimenduetan erabili ahal izango dira.

Erosketaren unean, kontsumitu nahi diren "txekek" entregatu beharko dira, behar bezala sinatuta.

Irabazleek azaroaren 30a bitarteko epea izango dute erosketa bonoak erabiltzeko.

7. IRABAZLEEN KONPROMISOAK

Lehiaketaren irabazleek beren identifikazio eta kontakturako datuak eman beharko dizkiete antolatzaileei, lehiaketaren amaieran. Datu horiek ezinbestekoak izango dira sarien kudeaketarako.

Bestalde, baimena ematen diote Urola Kostako Udal Elkarteari eta ekimen honen antolakuntzan partaide izan diren elkarteei (Babexa, Getariako dendari elkarteak; Arkupe, Orioko merkatari, ostalari eta profesionalen elkarteak; Murkil, Zarauzko dendarien elkarteak; Gertu, Zumaiaiko merkatari eta ostalari elkarteak; Getabat, Getariako Ostalari elkarteak; eta Zurekin, Zarauzko Ostalari elkarteak) eta udalei (Getariako udala, Orioko udala, Zarauzko udala eta Zumaiaiko udala) haien izenak eta irudiak argitaratzeko.

8. OINARRIAK ONARTZEA

Lehiaketa honetan parte hartzeak berekin dakar oinarriak oso-osorik eta baldintzarik gabe onartzea.

9. ERANTZUKIZUNA

Urola Kostako Udal Elkarteak beretzat gordetzen du lehiaketa hau aldatzeko, bertan behera uzteko edo geldiarazteko eskubidea, justifikatutako zioak edo lehiaketaren izaeraren kontrako zioak direla medio, elkartearentzako erantzukizunik sortu gabe.

Urola Kostako Udal Elkarteak lehiaketaren antolatzaile gisa, beretzat gordetzen du oinarri hauetako edozein puntu aldatzeko eskubidea.

10. ARGIBIDEAK

Argibideak nahi izanez gero, jarri harremanetan Udal Elkarteko Enpresa Zerbitzuarekin: Urdaneta bidea 6, Zarautz; Tel. 943890808; enpresa@urolakosta.eus